



IRIZPEN ZK.: D16-034

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILEKO HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZAK EGIN DUEN KONTSULTA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN DATUAK EZEREZTEARI BURUZ

AURREKARIAK

PRIMERO: Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (DBEB) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren kontsulta bat jaso du. Kontsulta goian adierazitako gaiari buruzkoa da.

SEGUNDO: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Agentziari galdetu diote ea zelan jokatu behar duen administrazio kontsulta egileak, ikasle baten ordezkari legalak eskatzen dionean ezabatzeko ikasleari buruz dituen zenbait datu.

Kontsultaren aurrekariak ikusita ondoriozta daiteke entitate kontsulta-egilea ikaslearen “hezkuntza-premia bereziei” buruzko datuez ari dela. Eta zehatzago esateko, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren esku dagoen “Hezkuntza-premia Berezien Aplikazio Informatikoa (W-67)” izeneko aplikazio informatikoan dauden datuei buruz ari da.

II

Hezkuntza arloan datu pertsonalak ezerezteko eskubideari buruzko kontsulta bat da; baina, kontsultaren mamiari heldu aurretik, hezkuntza premia bereziak edo berariazko premiak dituzten ikasleei buruzko hezkuntza araudia aztertu behar dugu.



Estatuko arau nagusia Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa da, eta 71. artikulua eta hurrengoak laguntza berezia behar duten ikasleei buruzkoak dira.

2/2006 Lege Organikoaren 73. artikulua ikasle horien esparrua definitzen du:

“Ezgaitasunak edo jokabide-nahaste larriak izateagatik eskolatzeko-aldi batean edo eskolatzeko osoan berariazko hezkuntza-laguntzak edo hezkuntza-arretak behar dituztenak dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak”.

2/2006 Lege Organikoaren 71. artikulua arautzen du hezkuntza administrazioak jarraitu behar dituen printzipioak hezkuntza premia bereziak edo berariazko premiak dituzten ikasleak daudenean tartean:

“1. Ikasle guztiek ahalik eta garapen pertsonal, intelektual, sozial eta emozional handiena eta lege honetan ezarritako helburu orokorrak lortzeko beharrezkoak diren baliabideak jarriko dituzte hezkuntza-administrazioek. Lehentasunezko ikastetxeen planak ezarri ahal izango dituzte, desabantaila sozialean dauden ikasleak eskolatzeko dituzten ikastetxeei laguntzeko, batez ere.

2. Halaber, hezkuntza-administrazioek beharrezkoak diren baliabide guztiak ziurtatu behar dituzte, hartara, hezkuntza-premia bereziak izateagatik, ikasteko aparteko zailtasunak izateagatik, AGHN izateagatik, adimen-gaitasun handiak izateagatik, hezkuntza-sisteman berandu sartzeagatik edo egoera pertsonalak edo eskolako historialak hala eskatzeagatik aruntaz bestelako hezkuntza-arreta behar duten ikasleek euren gaitasun pertsonalak ahalik eta gehien garatu ahal izan ditzaten, eta, nolahi ere, ikasle guztientzat ezarritako helburu orokorrak lortu ahal izan ditzaten.

3. Hezkuntza-administrazioek, era berean, aurreko paragrafoan adierazitako ikasleen berariazko hezkuntza-premiak garaitzeko beharrezkoak diren prozedurak eta baliabideak ezarriko dituzte. Hezkuntzan laguntza izateko berariazko premia dutenean, premia hori identifikatzen den unean bertan hasiko zaie ikasleei laguntza integrala ematen, betiere, egoerak normalizatzeko eta ikasleak txertatzeko printzipioei jarraituz.

4. Hezkuntza-administrazioek ikasle horien eskolatzeko bermatu beharko dute. Era berean, gurasoek edo tutoreek ikasle horien eskolatzeko eta hezkuntza-prozesuetan eragina duten erabakietan izan behar duten parte-hartzea arautu eta ziurtatu beharko dute. Horrez gain, bidezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte ikasle horien gurasoek aholkularitza indibidualizatu egokia eta seme-alaben hezkuntzan lagunduko dien beharrezko informazioa jaso dezaten”.

Printzipio horiek definitu ostean, 2/2006 Lege Organikoaren 73. artikulua aipatutako helburuak lortzeko zein baliabide behar diren zehazten du:

“1. Aurreko artikuluan adierazitako helburuak lortzeko, espezialitateetako irakasleak, profesional kualifikatuak eta ikasleei arreta egokia emateko beharrezkoak diren baliabideak eta materialak jarriko dituzte hezkuntza-administrazioek.

2. Hezkuntza-administrazioek ikasle horiei behar bezala erantzuteko beharrezkoak diren baliabideez hornitu beharko dituzte ikastetxeak. Hornidura hori finantzatzeko irizpideak berdinak izango dira ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan.



3. *Ikastetxeek behar bezalako eskola-antolamendua izan beharko dute, eta ikasle guztiek ezarrita dauden helburuak lortzeko beharrezkoak diren curriculum-egokitzeak egingo dituzte eta curriculum desberdinak eratuko dituzte.*

4. *Hezkuntza-administrazioek hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen tratamendurako irakasleen eta beste profesional batzuen prestakuntza sustatuko dute.*

5. *Hezkuntza-administrazioek beste administrazio batzuekin, irabazi-asmorik gabeko beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin eta beste erakunde edo elkarte batzuekin lankidetzan jardun ahal izango dute ikasle horien eskolatzea errazteko eta ikasle horiek ikastetxean hobeto txertatzeko”.*

Azkenik, 2/2006 Lege Organikoaren 75. artikulua finkatzen ditu hezkuntza administrazioak bete behar dituen printzipioak eta obligazioak hezkuntza premia bereziak edo berariazko premiak dituzten ikasleak eskolaratzean.

“1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak normalizazio- eta txertaketa-printzipioei jarraiki eskolatuko dira. Eskolatzeak ikasle horien diskriminaziorik eza eta hezkuntza-sisteman sartzeko eta irauteko berdintasun eraginkorra ziurtatuko du eta, beharrezkoa izanez gero, hezkuntza-etapak malgutzeko neurriak hartu ahal izango dira. Ikasle horiek hezkuntza bereziko unitateetan edo ikastetxeetan eskolatu ahal izango dira hogeita bat urteko adinera bitartean, betiere, ikastetxe arruntek aniztasunarekiko arretarako hartzen dituzten neurrien esparruan ikasle horien premiei erantzun ezin bazaie.

2. *Ikasle horien hezkuntza-premiak ahal bezain laster identifikatu eta balioetsiko dituzte behar bezalako kualifikazioa duten langileek, hezkuntza-administrazioek finkatzen dituzten baldintzetan.*

3. *Ikasturte bakoitza amaitzean, ikasle bakoitzak lortutako emaitzak ebaluatuko dira, hasierako balioespenetik abiatuta proposatutako helburuen arabera. Ebaluazio horrek ikasleei orientabide egokia emateko eta jardun-plana eta eskolatzeko modalitatea aldatzeko aukera emango du, ahal den neurrian ikasleak integrazio handiagoko erregimen batean sartzeko.*

4. *Hezkuntza-administrazioek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen haur hezkuntzako eskolatzea sustatu beharko dute. Halaber, ikasle horiek lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxeetan behar bezala eskolatzeko programak garatu beharko dituzte.*

5. *Hezkuntza-administrazioek, halaber, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoetan behar bezala eskolatzen jarraitzeko aukera bultzatu eta ezgaitasunak dituzten pertsonen Lege honetan ezarritako probak egiteko baldintzak egokitu beharko dituzte”.*

Azpimarratu behar dugu 75. artikulua 3. zenbakiak xedatzen duela ikasturte bakoitza amaitzean, ikasle bakoitzak lortutako emaitzak ebaluatuko direla hasierako balioespenetik abiatuta proposatutako helburuen arabera; eta emaitzak ikusita ekintza planean eta eskolaratze motan aldaketak egin ahal izango direla.

Euskal Autonomia Erkidegoan honako xedapenak arautzen du eskola premia bereziak dituzten ikasleen alorra: ekainaren 23ko 118/1998 Dekretua, eskola ulergarri eta integratzaileago baten esparruan, hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleei



hezkuntzaren alorrean eman behar zaien erantzuna antolatzen duena. Eta Dekretuaren 1. artikulua dio “Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan ezarriko dela”.

Eta 118/1998 Dekretuaren 2. artikulua dio zer esan nahi duen hezkuntza premia berezien kontzeptuak:

“... hezkuntza-premia bereziak izango dituzte eskolatzeko-aldi osoan edo epealdi batean hainbat lagungarri eta arreta berezi behar dituzten ikasleek, urritasun fisikoak, psikikoak edo sentimenekoak dituztelako, portaeran desoreka larriak adierazten dituztelako, edo gizarte edo kultura-egoera kaltetua dutelako; hezkuntza-premia bereziak izango dituzte, halaber, adimen-gaitasun handiko ikasleek, horiek ere arreta bereziak behar dituzte eta”.

Eta 118/1998 Dekretuaren 4. artikulua dio “*hezkuntza-premia bereziak antzemateko eta baloratzeko kualifikazio anitzetako adituez osatutako taldeak izango direla, “talde multiprofesional” izendapena jasoko dutela eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 26. atalean adierazten diren hezkuntzarako laguntza zerbitzuetan sartuta egongo direla*”. Gaur egun zonaldeko berritzeguneez burutzen dituzte talde horien eginkizunak, eta otsailaren 17ko 40/2009 Dekretuan daude araututa.

118/1998 Dekretuaren 5. artikulua dioenez zonaldeko berritzeguneez burutu behar dute diagnostia eta ebaluazio psikopedagogikoa. Hona xedatzen duena:

“1.- Alde multiprofesionalak diagnostia eta ebaluazio psikopedagogikoa egingo ditu, ikastetxeak eskatuta. Diagnostia egiterakoan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako legezko ordezkariak baimena eman behar dute, baita ikasleak berak ere horretarako adina baldin badute.

2.- Diagnostiko psikopedagogikoa egiteko norberaren ebaluazioa egin behar da eta kontuan eduki behar da ikaslearen egoera pertsonala eskolaren ingurunean eta familian. Diagnostia izango da eskolaratzeko proposamen zehatza egiteko oinarria.

3.- Diagnostikoa egin eta hortik ateratzen den informazioa inisialak eta kode bereziak erabilia adieraziko da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatu dezakeenaren arabera.

4.- Ebaluazio psikopedagogikoa da irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten elementu anitzi buruzko informazio garrantzitsua biltzen, aztertzen eta baloratzen dituen prozesua. Horrekin nortasunaren edota ikasketaren garapenean desorekak dituen edo izan ditzakeen ikaslearen hezkuntza-premia bereziak antzematen dira eta erabakiak oinarritu eta zehaztu egiten dira curriculum-proposamenari buruz eta ikasleak gaitasunak garatzeko behar izan ditzaketen laguntza-motegi buruz.

5.- Ebaluazio psikopedagogikoa curriculumaren ebaluazioan eta ikaslea irakaslearekin, ikasgelako lagunekin, ikastetxean eta familian nola konpontzen den ikusita egingo da”.

118/1998 Dekretuaren 8. artikulua arautzen du nola egin behar den premia bereziak dituzten ikasleentzako curriculum egokitzapena:

“1.- Curriculum Norbanakoari Egokitzea curriculumeko elementuetan (helburuetan, edukietan, ebaluatzen irizpideetan, metodologian, antolaketan) beharrezko aldaketa guztiak egitea da, ikasle batek eskolaketan osoan modu



iragankorrean edo iraunkorrean izan ditzakeen hezkuntza-premia bereziei erantzuteko.

2.-Ikastetxeek curriculumaren egokitzapenak proposatu beharko dituzte dekretu honetako 2. atalean adierazten diren hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, baina beti ere egokitzapen horiek ikastetxeko pedagogi autonomia gainditzen dutenean. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartu beharko ditu proposatutako egokitzapenak.

3.-Ikasturte bakoitzaren amaieran, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legearen 36.4. atalean zehazten dena oinarri hartuta, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bakoitzak lortutako emaitzak ebaluatuko dira, hasierako baloraziotik abiatuta proposatutako helburuen arabera. Ebaluazio horrek jarduteko plana emaitzen arabera aldatzeko aukera emango du.

4.-Curriculumaren egokitzapen guztien xedea izango da ikasleak curriculumean ezarritako gaitasun orokorrak eskuratzea, dituen aukeren arabera eta ahalik eta gehien integratuta dagokion taldean. Xede horiek lortzen dituzten ikasleek dagokien titulu akademikoa eskuratuko dute; lortzen ez dituztenek prestakuntza egokitua egin ahal izango dute laneratu ahal izateko kualifikazioa lortzeko.

5.-Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak zehaztuko du, agindu baten bidez, noren eskumena den curriculumaren egokitzapena eta horiek lantzeko, garatzeko eta ebaluatzeko jardunbidea ezarriko du”.

118/1998 Dekretuaren 11. artikulua baliabide espezifikoari eta itunpeko ikastetxeei buruzkoa da:

“Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezkoak diren administrazio-xedapenak garatuko ditu, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta eman ahal izateko baliabide espezifikoaren hornidura zehazteko, itunpeko ikastetxeetan”.

Beharrian bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko 1998ko uztailaren 30eko Aginduaren 2.5 artikulua xedatzen du ikasle bereziak eskolatzeko erabakitzen den guztia berraztertu ahal izango dela beti. Hona hemen 2.5 artikulua xedatzen duena:

*“Ikasle bereziak eskolatzeko erabakitzen den guztia **berraztertu ahal izango da beti**, baita aldatu, irakasleen etengabeko ebaluazio sistematikoari jarraituz eta talde multiprofesionalaren aldiroko txosten psikopedagogikoak ikusita. Edozein aldaketa egin aurretik, ikaslearen legezko ordezkariak jakinarazi beharko zaie, eta horien iritzia kontuan hartu beharko da, edo ikaslearena, iritzia emateko behar den adina badu”.*

118/1998 Dekretuaren 8.5 artikuluan jasotakoaren ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena arautzen zuen 1998ko uztailaren 24ko Agindua onartu zuen.

Gauzak horrela, 1998ko uztailaren 24ko Aginduaren 3. artikulua honakoa xedatzen du: “Edozein curriculum-egokitzapen egin baino lehen, ikaslea eskolarizatuta dagoen hezkuntza-testuingurua ebaluatu behar da. Curriculumaren egokitzapen nabaria edo curriculumean sartzekoa beharrezkoak izango dira aniztasuna kontuan hartzeko ohiko neurriak nahikoak ez direnean, hezkuntza-neurri osagarriak edo hezkuntza-indartze neurriak kasu”.



Aginduaren 4. artikulua *curriculumaren egokitzapen nabariak* egiteaz eta berrikustez dihardu:

- “1.- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak ikaslea eskolarizatuta dagoen hezkuntza-zikloaren hasieran egingo dira. Egokitzapen horiek definituko dute oro har ikaslearen eskolarizatzea, bere curriculumaren plangintza orokorra, hezkuntza-erantzunaren antolakuntza eta beharrezkoak diren aparteko baliabideak.
- 2.- Aparteko hezkuntza-egoerak direla eta, curriculum-egokitzapena, ziklo baten bigarren ikastarorako egiten bada, ikasturte horretarako bakarrik egingo da.
- 3.- Egindako curriculum-egokitzapena epe laburreko programazioetan gauzatuko da. Programazioetan ezarriko dira helburuak, edukiak, jarduerak, ebaluatze irizpideak eta metodologia-estrategia zehatzak, ikasgelako programazioaren garapenari lotuak.
- 4.- Etapetako eta hezkuntza-zikloetako ikastaro bakoitza amaitzean, tutoreak, horretan sartutako irakasleekin batera, ikastetxeko irakasle aholkulariak edo ikastetxeko orientatzaileak eta talde multiprofesionalak curriculum-egokitzapenaren garapena aztertuko dute, eta ikaslea hurrengo kurtsoan edo zikloan egoki eskolariza dadin, beharrezko aldaketak eta bideraketak proposatuko dituzte”.

III

2/2006 Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarria Ikasleen datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa da, eta zera xedatzen du:

“Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Ikasleen datu pertsonalak.

1. Ikastetxeek beren hezkuntza-jarduera gauzatzeko beharrezkoak dituzten ikasleen datu pertsonalak jaso ahal izango dituzte. Datu horiek izan daitezke familia- eta gizarte-jatorri eta -giroa, ezaugarri edo baldintza pertsonalak, eskolatzearen garapena eta emaitzak, bai eta ikasleen hezkuntzarako eta orientaziorako jakin beharrezkoak diren gainerako alderdi guztiak ere.
2. Gurasoek edo tutoreek, eta ikasleek berek artikulua honetan adierazitako informazioa lortzen lagundu beharko dute. Ikasle bat ikastetxe batean sartzean, ikasle horren datuak tratatzeko baimena emango da eta, hala badagokio, ikaslea aurretik eskolatu zen ikastetxeko datuak lagako dira, datuen babesari buruzko legerian ezarritako baldintzetan. **Nolanahi ere, paragrafo honetan aipatutako informazioa irakaslanerako eta orientabide lanerako behar-beharrezkoa dena izango da, eta ezin izango da, esanbidezko baimenik gabe, hezkuntzakoaz bestelako helburuetarako erabili.**
3. Ikasleen datuen tratamenduan, datu horien segurtasuna eta konfidentziasuna bermatuko duten arau teknikoak eta antolamenduzkoak aplikatuko dira. Beren funtzioak betetzeko datu pertsonalak, familiakoak edo adingabeen edo horien familien ohorean eta intimitatean eragina izan dezaketenak erabiltzen dituzten irakasleak eta gainerako langileak isiltasunaren betebeharrari lotuta geratuko dira.
4. Hezkuntza-sistamarako beharrezkoak diren datuak, ezkutukoak barne, bide telematikoz lagako dira ahal bada, eta lagapen hori datu pertsonalen babesaren arloko legeriari lotuta egongo da. Gutxienezko baldintzak Gobernuak eta autonomia-erkidegoek adostuko dituzte Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren baitan”.

Xedapen gehigarriaren 1. eta 2. zenbakietatik ondorioztatzen da lege gaikuntza egon badagoela ikastetxeek tratatu ditzaten ikasleen datuak eta ikasleen familiarteko eta inguru



sozialeko datuak, hezkuntza eginkizuna burutzeko beharrezkoak diren datuak behintzat, eta informazioa irakaslanerako eta orientabide lanerako behar-beharrezkoa bada.

Datuak Babesteko Lege Organikoaren (DBLO) 6.1 artikulua ezarritako printzipio orokorraren arabera, *"datu pertsonalak tratatzeko, ukituaren zalantzarik gabeko adostasuna beharko da, salbu eta legeak beste zerbait xedatzen duenean"*. Ukituen osasun datuak direla-eta, DBLOren 7.3 artikulua honakoa xedatzen du: *"Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko izaera pertsonaleko datuak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori"*.

Bada, lehen esan dugunez, 2/2006 Lege Organikoren hogeita hirugarren artikulua legezko gaikuntza bat ezartzen du datuak tratatu ahal izateko, eta ez da beharko ukituaren edo ukituaren ordezkariaren baimenik irakaslanerako eta orientabide-lanerako behar diren datuak tratatzeko, baldin eta datu horiek tratatzea ezinbestekoa bada irakaslanerako eta orientabide-lanerako.

Horrek esan nahi du ez dela beharko ikasleen, gurasoen edo tutoreen baimenik datuak tratatzeko, eta, beraz, ezin izango direla datuak tratatzearen kontra agertu. Are gehiago, Legeak nahitaezko lankidetzaren betebeharra ezartzen die ikasleei eta gurasoei bai datuak emateko orduan bai datuak tratatzeko orduan, eta ikastetxeak betebeharrak hori baliatuko du ikasleek eta gurasoek informazioa emateko eragozpenak jartzen badituzte.

Edozelan ere, berretsi behar dugu Lege Organikoak dioela bakar-bakarrik tratatu ahal izango direla irakaslanerako eta orientabide lanerako behar-beharrezkoak diren datuak, eta hezkuntza kontuetarako baino ezin izango direla erabili, berariazko baimenik eman ezean.

Horrela jokatzuz, hezkuntzaren arloan ere islatuta geratzen dira 15/1999 Lege Organikoaren 4. artikuluko 1. eta 2. zenbakiek ezarritako printzipioak. Lehenengo zenbakiak honakoa xedatzen du: *"Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek zein esparrutan eta zein xedekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legitimoak izan beharko dira"*.

Bigarrenak honakoa dio: *"Tratamenduko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren xedeetarako"*.

Euskal Autonomia Erkidegoan Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998ko ekainaren 24ko Aginduak arautzen dute berariaz nola tratatu behar diren hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen datu pertsonalak.

Ikusi alde batetik ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak dioena:

"6. artikulua. Informazioaren xedea eta tratamendua.

1.-Datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzeko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoaren arabera, ikasleen hezkuntza-premia bereziei buruzko artxibategietan gordeta dagoen informazioa babestuta egon behar du, lanegatik behar duten adituek bakarrik eskuratu ahal izan dezaten, ez beste inork. Nolanahi ere, babesaren eta



isilpekotasunaren erantzukizuna ikastetxeko zuzendaritzarena, partehartzearen arduradunena eta jakinaren gainean dauden guztiena izango da.

2.-Beren kargua dela eta diagnostikoaren edukia eta ebaluazio psikopedagogikoaren txostena ezagutu beharra duten adituek isiltasuna ziurtatu behar dute. Informazio hori gordetzeko eta zaintzeko erantzukizuna ikaslearen espedientea jasota daukan administrazio-unitatearena izango da.

3.-Administraziorako informazioa beharrezko baliabideak emateko izango da eta irakasleentzako informazioa dagokion curriculumaren egokitzapenak egiteko.

4.-Informazioa modu ulergarrian emango zaie legezko ordezkariari eta, ahal denean, ikasleari berari, erabilgarria izan dadin ikasleak eta familiak berak hezkuntza-prozesuan partehartze aktiboa izan dezaten”.

Eta, bestetik, 1998ko uztailaren 24ko Aginduaren 5. artikulua (“Kontserbatzea eta zaintzea”) ondokoa ezartzen du hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen norbanakoen curriculum egokitzapenak egin behar direnerako:

“5. artikulua. — Kontserbatzea eta zaintzea.

1.-Curriculum-egokitzapenaren kopia artxibatuta egongo da nahiz ikastetxean, nahiz talde multiprofesionalan.

2.-Ikaslearen espediente pertsonalean sartuko dira: agindu honen 10. eta 16. ataletan jasotzen diren curriculuma norbanako egokitzapen nabarien dokumentuaren xehetasunak, egokitzapen-baimenaren jakinarazpena, eta, hala badagokio, talde multiprofesionalak hezkuntzan eskuhartzeko egindako orientabideak. Egokitzapenaren berri emango da «Datu medikoak eta psikopedagogiko nabarmenak» izeneko orrian. Era berean, islatuko dira ebaluazio-agirietan, eta Oinarrizko Hezkuntzaren Eskolaketa Liburuan, edo Batxilergoko edo Lanbide Heziketako kalifikazio-liburuan «CNE» siglekin (Curriculumaren norbanako egokitzapena), egokitzapen-neurriari dagokien laukitxoetan.

3.-Isilmandatu-printzipioak lehentasuna izan behar du honako Agindu honetan helburu diren curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak egitean sortzen diren diagnosi-informazioa eta datu pertsonalak, familiarrak eta gizartekoak erabiltzean”.

IV

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen datu pertsonalen fitxategiak direla eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2010eko urriaren 4ko Aginduak (2010-11-05eko EHAA, 213. zk.) “Hezkuntza Berezia” izeneko fitxategia arautzen du beste batzuen artean. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak du fitxategiaren erantzukizuna. Hona fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

“Premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzun egokia bermatu, horiek eta ikastetxeak eta hezkuntza-eremuak baliabide materialez eta pertsonalez eskuratuz. Ikasleei laguntza. Ikastetxera ezin joan diren ikasleen hezkuntza-premiei erantzun. Ikasle jakin batek dituen diagnosiak, pronostikoak eta premiak aztertu, horren hezkuntza-erantzunak behar dituen baliabideak kudeatzeko”.

Fitxategiaren egitura eta bertan jasotako datu mota: datu identifikatiboak, bereziki babestutako datuak (osasun datuak), xehetasun pertsonalei buruzko datuak, datu akademikoak eta lanbideari buruzko datuak, enpleguari buruzko xehetasunak eta datu ekonomiko-finantzarioak.



Ondo bereizi behar dira, batetik, Aginduak arautzen dituen fitxategiak (tartean dago “Hezkuntza Berezia” izenekoa) eta, bestetik, “Hezkuntza-premia Berezien Aplikazio Informatikoa (W-67)” izeneko aplikazio informatikoa.

Kontsulta egin duen administrazioak dio aplikazio informatiko hau “*premia bereziak dituzten EAEko ikasleen eskolaratzea kudeatzeko tresna bat dela: premia bereziak dituzten ikasleak identifikatzea eta jarraipena egitea, balorazio psikopedagogikoaren ondorioak, aparteko curriculum neurriak eta langile espezializatuak proposatzea, aparteko neurriak baimentzea eta abar*”.

Esandakoaren arabera, aplikazio informatikoa kudeaketarako tresna bat da, eta horrek esan nahi du aplikaziorako sortutako fitxategitik edo fitxategietatik hartzen dituela behar dituen datuak.

Premia bereziak dituzten ikasleen aplikazioko datu pertsonalak berariaz aplikaziorako sortutako fitxategitik edo fitxategietatik hartu beharko dira, hau da, fitxategi horretatik edo horietatik hartuko dira aplikazioan jasoko diren datuak; hala egin ezean, hau da, aplikazioak beste nonbaitetik hartutako datu pertsonalak edukiz gero, beste fitxategi hori sortuta egon beharko luke.

V

Horiek ikusita, kontsultaren mamia aztertuko dugu orain. Kontsulta datu pertsonalak ezerezteari buruzkoa da.

Konstituzioaren jurisprudentziak esan duenez (azaroaren 20ko 292/2000), datuak ezerezteko eskubidea eta datuak atzitzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubideak denak dira datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen zati bat.

Eta eskubide horiek denak eskubide pertsonalak dira. Halaxe xedatzen du DBLOren Erregelamenduaren 23. artikulua. Hona Erregelamenduaren 2. zenbakiko b) letrak: “*Tartean dena ezintasunen bat duena bada edo adinez txikia, eta hori dela eta ezin badu eskubide horiek bere kabuz gauzatu, bere legezko ordezkariaren bidez izango du hori egiteko aukera, eta horretarako, legezko ordezkariak benetan hala dela erakutsi beharko du*”.

Datu pertsonalen titularrak bere datuak ezerezteko eskubidea du, batez ere datuak ez badira zehatzak edo zerbait falta bada —DBLOren 16. artikulua— edo beharrezkoak ez badira datu bilketa egin zenean zegoen helbururako —DBLOren 4.5 artikulua—. Datuak ezerezten direnean datuak bloketatu egiten dira, eta horrek esan nahi du bakar-bakarrik administrazio publiko eskumendunen eta epaile eta epaitegien eskura egongo direla, eta ezabatu egin beharko direla datu tratamenduaren ondorioz egon daitezkeen erantzukizunen iraungitze epea igaro ondoren.

Datu okerra bada edo datuari zerbait falta bazaio, datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea erabatekoa dela esan daiteke; izan ere, okerra edo hutsa egiaztatutakoan datua zuzendu egin beharko da eta datu zuzena jaso, eta hala egin ezean, ezereztu egin beharko da.

Interesdunak uste badu datu pertsonalak ez direla egokiak edo gehiegizkoak direla, halakoetan zailagoa da eskubidea baliatzea. Halakoetan, datuak ezerezteko eskubideak kalitatearen printzipioarekin egiten du talka; izan ere, DBLOren 4.5 artikulua zera dio:



“Datu pertsonalak ezabatu egingo dira, horiek jasotzeko edo erregistratzeko zegoen helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean”.

Gerta daiteke fitxategiaren arduradunak datu pertsonalak gordeta izatea uste duelako datuak beharrezkoa edo garrantzitsuak direla bildu zirenean zegoen helbururako; eta datuen titularrak, ordea, kontrako iritzia izatea.

Azpimarratzekoa da Antonio Troncoso Reigada irakasleak, Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentziako zuzendari ohiak, “La Protección de Datos Personales. En busca del equilibrio” liburuan esandakoa datuak ezereztearen mugei buruz: “Oreka” nola bilatu azaltzeko, zera dio:

*“Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea ez da erabateko eskubidea, beste oinarrizko eskubide batzuen parekoa delako, esate baterako, hezkuntza eskubidea. Hezkuntza arduradunaren betebeharretako bat da hezkuntza eskubidea eman egiten dela bermatzea eta interes orokorra babestea —Konstituzioaren 103. artikulua—. Beraz, **badira zenbait muga historia akademikoak ezerezteko orduan, eta hezkuntza arloko legediak ezartzen ditu. Hala ere, zilegi da arreta psikopedagogikoko taldeen espedienteak ezerezte hezkuntza prozesua bukatu ondoren”.***

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak ere esan du zer uste duen datu pertsonalak gordetzea dela eta. Hona 0399/2008 txosten juridikoak adierazitakoa:

“Kontsultagilearen fitxategian dauden datuak gordetzea dela eta, kontuan hartu behar da, 15/1999 Lege Organikoaren 4.5 artikulua xedatzen duena: “Datu pertsonalak ezabatu egingo dira, horiek jasotzeko edo erregistratzeko zegoen helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean”. Beraz, “datuak ezin izango dira interesduna identifikatzeko moduan gorde, eta bildu edo erregistratu zirenean zegoen helbururako behar den denbora tartean bakarrik gorde ahal izango dira, ez luzarago.”

Kontsultak dioenez, orain esan dugun hori Lege Organikoaren 16. artikulua xedatutako arauekin uztartu behar da, ukituak ezerezteko eskubidea baliatu dezan.

Zehatz esanda, 16.5 artikulua zera dio: “Izaera pertsonaleko datuak gorde beharko dira aplikatu beharreko xedapenetan edo, hala denean, tratamenduaren gaineko ardura duen pertsona edo entitatearen eta interesdunaren arteko kontratu-harremanetan ezarritako epeetan.”

Eta 16.3 artikulua zehaztu egiten du zer den datuak ezerezte, hau da, datuak ez dira fisikoki ezabatzen: “Ezerezteak datuak blokeatuko ditu, eta datu horiek administrazio publikoen, epaileen eta auzitegien esku bakarrik gordeko dira, tratamenduak erator ditzakeen erantzukizunei aurre egiteko, erantzukizun horien preskripzio-epeak iraun bitartean. Aipatu epea igaro ostean, datuak suntsitu egin beharko dira”.

Kontuan hartuta kontsulta-egileak era askotako fitxategiak dituela, zaila da argi eta garbi esatea datu pertsonalak babesteko araudian ezarritako iraungitze-epeak bete arte gorde behar direnik datuak. Beraz, datuak kontsulta-egilearen fitxategietan egongo dira ukitutako ikasleak ekintzaren bat egin behar badu ere.

*Hori gerta daiteke, adibidez, **espediente akademikoarekin, gerta daitekeelako ikasleak berak espedientea eskatzea, nahiz eta datu babesaren arloko arau-hausteen iraungitze epeak igarota egon.***



Gainera, ez da Agentziaren zeregina esatea zenbat denbora gorde behar den espediente akademikoa, eta hezkuntza gaietan eskumena duen administrazioek ezarri behar dituzte epeak hezkuntza arloko araudiarekin eta 15/1999 Lege Organikoarekin bat. Eta halaxe adierazi zuen Agentziak ikastetxe publikoei, pribatuei eta itunpekoari emandako gomendioetan: “ezin da jakin zenbaterainoko garrantzia duen ikasleen espediente akademikoko mota guztietako dokumentazio guztia gordetzeak. Horregatik, komeniko litzateke zehaztea ikastetxeek duten erantzukizuna espediente akademikoen edukiaren eta zaintzaren gainean”.

Beste kasu batzuetan, adibidez, jasotako diru-laguntzei buruzko kontuak direnean edo itunpeko ikastetxeen kasuan hezkuntza administrazioetik jasotako zenbatekoak direnean, gerta daiteke epeak 15/1999 Lege Organikoan jasotakoak baino luzeagoak izatea, eta kontuan hartu beharko da, adibidez, Estatuko edo autonomia erkidegoko aurrekontuen esparruko araudian xedatutakoa.

Gainera, ikastetxea hezkuntza zereginarekin lotutako fitxategien arduraduna izateaz gain, beste helburu batzuetarako datuak dituzten bestelako fitxategi batzuen arduraduna ere bada, adibidez, irakasleen edo administrazioiko langileen datuak dituzten fitxategiak. Halakoetan, beste arau eta xedapen batzuk hartu beharko dira kontuan datuak zenbat denbora gorde behar diren zehazteko.

Beraz, ezin zaio erantzun bakar bat eman egin diguten kontsultari eta kasu zehatz bakoitzari erantzun beharko zaio, tratamenduak banan-banan aztertuz eta tratamendu bakoitzari ezarri beharreko araudia kontuan hartuz”.

Kontsultak ez du garbi adierazten ea ikaslearen legezko ordezkariak ikaslearen hezkuntza premia berezien gaineko datu pertsonal guztiak ezereztu nahi dituen ala batzuk bakarrik, eta ea datuak espediente akademikokoak edo arreta psikopedagogikoko taldeen (talde multiprofesionalak izan ohi dira, eta egun zonaldeko Berritzegune deritze) espedienteetakoak diren ala ez.

Esandako guztiarekin bat, hezkuntza administrazioak erabaki beharko du zenbat denbora eduki behar diren gordeta datu pertsonalak, eta, ondorioz, mugak jarri beharko dizkio ikaslearen legezko ordezkariak baliatu duen ezerezteko eskubideari, beti ere, irizpen honetan aipatutako hezkuntza arloko eta datu pertsonalak babesteko arloko araudia betez.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 30a